**2021eko UZTAILAREN 1eko OSOKO BILKURAKO AKTA.**

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-07-01.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: berezia, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
José Esteban Aguirre Zubieta
Josu Iratzoki Agirre
HERRIRAKO
Germán Castillo Lazcanotegui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:
M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Julen Errandonea Martin
Maialen Chantre Irazoki
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

**1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/06/16). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

**2. GORA JOTZEKO 21-00728 ERREKURTSOA, 2021/02/17KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAREN AURKAKOA (HJPB-AREN BEHIN BETIKO ONESPENA).**

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2021eko maiatzaren 31koa, zeinaren bidez Udalari jakinarazten baitzaio 21-00728 zenbakiko gora jotzeko errekurtsoa, XXX andreak jarria, Venta Peio, S.L.ren eta Eliz-aldea, S.L.ren izenean eta ordez, Udalbatzak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen Bostargi, S.L. enpresak Ibardinen sustatutako hiri-jarduerarako plan berezia.

- XXX abokatuak 2021eko ekainaren 24an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea dagoeneko egin direla nahitaezko epatzeak.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegiari bidaltzea onetsitako txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera, epatzeko egindako jakinarazpenak erantsita.

**3. GORA JOTZEKO 21-00901 ERREKURTSOA, 2021/02/17KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAREN AURKAKOA (HJPB-AREN BEHIN BETIKO ONESPENA).**

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2021eko ekainaren 1ekoa, zeinaren bidez Udalari jakinarazten baitzaio 21-00901 zenbakiko gora jotzeko errekurtsoa, XXX jaunak jarria Udalbatzak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen Bostargi, S.L. enpresak Ibardinen sustatutako hiri-jarduerarako plan berezia.

- XXX abokatuak 2021eko ekainaren 24an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea dagoeneko egin direla nahitaezko epatzeak.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegiari bidaltzea onetsitako txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera, epatzeko egindako jakinarazpenak erantsita.

**4. 2021/7 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. KREDITU-GEHIGARRIA (LARUNGO PISTA MOLDATU; “GONDENDIAGA” MOLDATU). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak hainbat obra egiteko asmoa duela.

- Martxoaren 18ko 68/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2020ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzailetzak 2021eko ekainaren 28an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hauek direla gehigarria behar duten gastu-partidak:

1-4121-69203. Larungo pistaren mantentze lanak. 19.000,00 €.
1-4121-68200. Gondendiaga konpontzea. 20.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 39.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 39.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2021/7 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Beste aztergairik izan gabe, 19:55ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.